# ABENDUA
# DICIEMBRE

2018



Az

Azkuna Zentroa

AlhóndigaBilbao

www.azkunazentroa.eus


FLICK_EU Citizens' Gallery

# FLICK_BI

**Artistak** Artistas
PETER WEIBEL & MATTHIAS GOMMEL

Dena hasi zen YOU_ser erakusketarekin. Peter Weibel-ek komisariatu zuen 2007an, Alemaniako Karlsruhe-ko ZKM Arte eta Baliabide Teknologikoen Zentroan. Ikusleak gonbidatu zituzten, parte-hartzaile aktibo, interpretatzaile eta artista izateko.

Museoko atartean jarritako fotomatoiarekin egindako argazkiak sarrerako txartel modukoak izan ziren. Hala, pertsona bakoitzak bere buruaren argazkia ateratzen zuen, eta, gero, erakusketaren parte zen proiekzio handi batean islatzen zen. Museoa zabaldu zen herritarrak sar zitezen, eta Herritarren Foroa deitu genion. Aldi berean, argazkiak online aurkeztu ziren, eta tokiko erakusketa hura ezagutzera eman zen Interneteko konexioaren bidez.

Denboraren poderioz, proiektua Europako hainbat herrialdetan izan da, eta erakusketa eta museo askotan egon da ikusgai. Orain arte, ia 100.000 lagunek hartu dute parte, besteak beste, Sevillan, Vienan, Istanbulen, Lyonen eta Edinburgon, eta Herritarren Galerian geratu dira irudikatuta.

Orain, erakusketa honen edizio berezi bat izango dugu Azkuna Zentroko Kulturen Atari bikainean zenbait astez: FLICK_BI. Ikusleak Atariko Eguzkiaren Pantailan geratuko dira islatuta, haien erretratuaren argazkiarekin. Ongi etorri!

Todo comenzó con la exposición *YOU_ser*, comisariada por Peter Weibel en 2007 en el ZKM Centro de Arte y Medios Tecnológicos de Karlsruhe, Alemania. El público fue invitado a la exposición en calidad de participantes activos, intérpretes y artistas.

Las fotos realizadas con el fotomatón ubicado en el vestíbulo del museo se convirtieron en una especie de ticket de entrada. Así, cada persona que se hacía una foto, quedaba reflejada en una gran proyección que formaba parte de la exposición. El museo se abrió a la ciudadanía y lo denominamos el Foro de los Ciudadanos. Al mismo tiempo, las fotografías se presentaron online y la exposición local se difundió mediante su conexión a Internet.

A lo largo del tiempo, el proyecto ha viajado a distintos países europeos y se ha exhibido en numerosas exposiciones y museos. Hasta la fecha, alrededor de 100.000 personas han participado en ciudades como Sevilla, Viena, Estambul, Lyon y Edimburgo, y han quedado representadas en la Galería de los Ciudadanos.

Ahora, Azkuna Zentroa, con su magnífico Atrio de las Culturas, acogerá durante varias semanas una edición especial, el *FLICK_BI*. El público quedará representado en la Pantalla del Sol del Atrio con la foto de su retrato. ¡Bienvenidos!

**Peter Weibel & Matthias Gommel**
**FLICK_BI**
**2007/2018**

## ABENDUAK 20 DE DICIEMBRE > URTARRILAK 27 DE ENERO



PETER WEIBEL & MATTHIAS GOMMEL

# FLICK_BI

**ARGAZKI-GALERIA HERRITARRA**
GALERÍA FOTOGRÁFICA CIUDADANA
**Arte garaikidea** Arte contemporáneo

**Euskara / Gaztelania / Ingelesa**
Euskera / Castellano / Inglés

**Publiko guztiak**
Todos los públicos

**Zentroaren ordutegia** Horario del Centro (pág. **43 or.**)
**Kulturen Ataria** Atrio de las Culturas
**1€**

*Flick_Bi* autorretratuei buruzko instalazio interaktiboak aukera ematen dizu nortasun-agiriaren tamainako argazki bat ateratzeko eta erakusketaren parte izateko. Txanpon baten truke, zure argazkia ohiko eran inprimatuko da, baina Kulturen Atariko eguzkiaren pantailara ere transmitituko da. Aldi berean, irudiak **www.zkm.de/flick_bi** web orrira igoko dira, aurreko erakusteetan ateratako milaka erretratuekin batera egoteko.

*Flick_Bi proiektuak erretratuek aro digitalean duten funtzionaltasuna iragartzen du.*

*Flick_Bi* es una instalación interactiva sobre autorretratos que invita al público a sacarse una foto de carnet y convertirte en parte de la exposición. Con la inserción de una moneda, se produce una fotografía de la forma habitual, transmitiéndose también a la Pantalla del Sol del Atrio de las Culturas. Simultáneamente, las imágenes se subirán a la página web **www.zkm.de/flick_bi** junto con los miles de retratos de previas exposiciones.

*Flick_Bi* presagia la función de los retratos en la era de los medios digitales..

## ABENDUAK 27 > 29 DE DICIEMBRE / URTARRILAK 2 > 4 DE ENERO

**Osteguna > larunbata** Jueves > sábado / **Asteazkena > ostirala** Miércoles > viernes




# HARRI, ORRI, AT

# LIBRO, PAPEL O TIJERA

**Literatura**

**Euskara / Gaztelania**
Euskera / Castellano

**+3 urte** años
**Familientzat**
Público familiar

**12:00-14:00 / 17:30-19:30**
**Kulturen Ataria** Atrio de las Culturas
**3€ / 2€ Az txartelarekin** Con tarjeta Az*

Liburuen bitartez sormena eta irudimena astintzen dugu. Liburuekin inoiz ikusi ditugun herrialde erreal eta asmatuak ezagutzeko aukera dugu. Ezagutu eta guk geuk geografia harrigarri horiei nahi dugun forma eman diezaiekegu. Irakurlea txoria lez hegaz doa, norbere mugetatik ireki eta zabaldu egiten da. Liburuak dira ezezagunaren aurrean kuriositatea pizteko motorra. Eta hala, hitza eta irudiaren bitartez jolastera gonbidatuko gaitu espazio berezi honek.

Ideia: Itziar Zorita eta Itziar Imaz

Tratamos de sacudir la creatividad y la imaginación a través de los libros. Mediante los libros, podemos conocer países reales e inventados sin haberlos visto nunca, conocerlos, e incluso darles la forma que más nos apetece a esas geografías sorprendentes. Las personas lectoras pueden volar como un pájaro, abrirse y expandirse desde sus propios límites. Los libros son un motor que azuza nuestra curiosidad ante lo desconocido. Con esas premisas, este peculiar espacio nos invita a jugar mediante la palabra y la imagen.

Idea: Itziar Zorita e Itziar Imaz



*ATARIKO ESPERIENTZIAK* **eguneko bonua** Bono de día *EXPERIENCIAS EN EL ATRIO* (**+info:** pág. **9 or.**)

EUSKERA

URTARRILA OTSAILA MARTXOA 2019





Az
Azkuna Zentroa
AlhóndigaBilbao

Bilbao

# Peter Weibel & Matthias Gommel

## *FLICK_BI*

Argazki-galeria herritarra



*FLICK_BI* pieza Peter Weibel eta Matthias Gommel artisten instalazio interaktibo bat da, autorretratuei buruzkoa. Piezan, gonbit egiten zaie ikusleei, nortasun-agiriaren tamainako argazki bat ateratzeko eta erakusketaren parte izateko

Zure erretratua, artelan bat. Txanpon bat sartu, eta argazki bat egiten da, ohiko eran, eta, horrez gain, Kulturen Atariko eguzkiaren pantailara ere igortzen da. Era berean, irudiak www.zkm.de/flick_bi web orrira igoko dira, aurreko erakusteetan ateratako milaka erretratuekin batera egoteko.

Instalazio honek aukera ematen die ikusleei haien argazkia espazio errealean ikusteko eta, gainera, erretratuan hartutakoa espazio birtualean egoteko. Espazio birtual eta lekuz aldatu honek sare sozialen izaera islatzen du. Selfien bidezko pertsonen autorrepresentazioa aldatzen hasi da pertsonek espazio publikoetan izaten zuten jokaera. Gaur egun, nola-halako garrantzia duen edozein ekitaldi akuilua izaten da, parte-hartzaileek selfieak egin ditzaten, eta horiek berehala heda daitezke mundu osoan barrena.

*FLICK_BI* proiektuak erretratuek aro digitalean duten funtzionaltasuna iragartzen du.

*FLICK_BI* instalazioak YOU_ser erakusketa du abiaburu. ZKMko zuzendari Peter Weibel-ek komisariatu zuen 2007an, Alemaniako Karlsruhe-ko ZKM Arte eta Baliabide Teknologikoen Zentroan. Ordutik hona, proiektua Europako hainbat herrialdetan izan da, erakusketa eta museo askotan erakutsi da eta 100.000 pertsonak baino gehiagok hartu dute parte.

Abenduak 20 > Urtarrilak 27

**Ordutegia:**

Astelehena-Osteguna: 7:00-23:00
Ostirala: 7:00-24:00
Larunbata: 8:30-24:00
Igandea: 8:30-23:00

Urtarrilak 1 eta 6, asteartea eta igandea: 10:00-23:00
Kulturen Ataria
1€

FITXA ARTISTIKOA

**Peter Weibel/Matthias Gommel (Alemania)**
FLICK_BI (2007/2018)
**Instalazio interaktiboa:** Fotomatoia, 5 ordenagailu, 5 monitore, web artxiboa

www.gommel.com

www.peter-weibel.at

Proiektua:

zkm karlsruhe

Hiruhileko aldizkaria euskaraz eta gaztelaniaz ere argitaratzen da. Web orritik deskargatu edo Infopuntuan eska dezakezu, hau da, Kulturen Atarian dagoen informazio-gunean.